

IÑIGO ARREGI

# Graffitiak eta totemak

*Rafael Castellano*

Orain datorrena paradoxa hutsa da. Badut baimena, bai horixe. Demagun buru zentzudun orok, eta Arregirena halakoxea dugu, susmo txarra hartzen diela autobiografie, bizitzaren deskribapenei, striptease existentzialei, argazki robotei eta nortasunak suntsitzen dituzten profil estatistikoei. Artelanak, paper epidermikoan mamitutako estanzazioak, formatu handiko pintura, egur edo metalezko larruzalean margotutako olioak, ez du, aleluia, ADNrik. Inor ez da, beraz, autodefiniziorik egiteko gai, ez norbere buruaz, ezta irudimenari, mitologiari, graffitiari nahiz poesiari lotutako sorkuntzaz ere. Nolatan ulertuko ditugu bada inoren hieroglifoak eta totemak? Ez dago konbentziorik; nork bere kodeak eta ideograma intimoak erabiltzen ditu. Nolatan lortuko dugu bada elkar aditzea eta, are gehiago, norbere estimulazio sensoriala helaraztea? Komentaristaren lana, artea aurrez aurre duela, parapsikologiako kontua iruditzen zait. Edo telepatia kontua, horretan sinesten dutenentzat. Agnostiko eta eszeptikoentzat –ni neu nauzue horietako bat– dilema galanta da. Esanak esan, ahalmen eta gaitasunerako bide horren, estetikaren, eta ondorengo edo aurreko urratsaren, artisautzaren, alderdirik atsegina haxe da: beti dagoela enigmaren bat. Edo hainbat. Edo pilo bat. Makina bat ditu Iñigo Arregik. Ea batzuk behintzat argitzen ditugun.

Litekeena da bi gizaki antzekoak izatea; berdin-berdinak ez, ordea, inondik inora. Horregatik, mintzagai dugun artistak sutsu aitortu digu bere formen bidez iradokitako flash edo mezu berezia ikusleen esku uzten duela, nahi duten moduan ikusi, aztertu, ulertu edo jaso dezaten. Ez duela formularik nahi, dogmen zentzuan. Kontrapuntu atonaletan oinarritutako forma dodekafonikoak (koloreek soinua dute, entzun egiten dira begiekin, eta alderantziz) darabiltza, intuizioari zuzenduak, koordinatu kartesiarrei baino gehiago. Ondorioz, gure gizonaren lanei dagokienez, nabarmentzekoa da herritarrak ez daudela babesik gabe erabakitzaileek adostutako gertakarien aurrean. Sormenerako ustezko talentuaz ari naiz, eta aurkitzen duenak, onartu egiten du denbora eta toki jakin bateko maiztertzat, eta bere egiten du behin behineko mezenasgoa, ekitaldiko parte-hartzaile guztiekin batera, denak operako korua edo superproduktoreen bateko estrak bailiran, harropuzkerien artean mitoa mitifikatzeko.

## **Zuritzerik ez**

Hau horrela da adituok hala erabaki dugulako, eta zuk gurtu egin behar duzu, halabeharrez. Aspaldiko kontuak dira horiek, edo izango ahal dira. Horrenbeste aldarrikatu den partaidetza kolektiboak ahotsa du hemen eta orain, eta botoa ere bai, eta nork bere iritzia izateko aukera, guru orojakileen sistemak dagoeneko ez baititu urrunetik gidatzen matxinsalto txiki traketsen gisara. Iñigo Arregi ez da, besteak beste, mistifikazio bat. Ez da otoitzean aritzen, lanean baizik. Ez du txistu antzurik alferrik galtzen bere kontuez teorizatzen, bere zereginak zuritzeko

moduak bilatzen. Ez du inolako zerikusirik star system deitoragarriekin: horien edozein koadro edo eskultura multzori beti atxiki behar izaten zaio legenda hollywoodtarren bat, Maltako Belatzaren erakoa edo.

Lerro hauek idazten ari dena oker ibili da maiz, burgesia jadanik ez dela deusekin txunditzen esanez. Eta halaber, inor ez dela ezerekin txunditzen aldarrikatuz. Beharbada, klase ertain-ertain batzuek barnedekorazioaren (eta kanpokoan, lorontzi eta landare motak era barne direla) gomendioak onartzen jarraituko dute. Baina ez dut uste azalpenik eskatuko dietenik, ea zer esan nahi izan duen horrekin. Edo Lehen Hezkuntzako alaba hori egiteko gai dela esaten hasiko direnik, behar beste diru ez izateak eragindako autoengainuan eroriz. Baina oraindik bada zeharo txundituta, lilurak jota erabat, dagoen mundu bat: fiduziarena. Artearen balioak burtsako baliotzat hartzen dituen. Eta horrelaxe daude kontzientzia txarreko hainbat potentatu ere. Jakobear eskaleen antzeko arropak soinean jantzita, gorantz omen doazen artisten obrak handizka erosi eta, badaezpada ere, paradisu fiskaletako kutxa gotorretan sartzen dituzte. Gorantz omen doazen artistak, edo agian hiltzear daudenak.

### **Ur-bilatzailearen eskua**

Arregiren artea, berriz, ez da promozionala, ez dabil oparotasuna sor eta lor uzteko nahiak eraginda. Bere asmoa ez da gutizia piztea, zirrara eragitea baizik. Alegia, hori gertatzen bazaio, gailurrera eramanez eta guggenheimdar bihurtzen badute, bejondeiola. Izan ere, inork ezingo luke, inork ezin du, ezertxo ere egin arrakasta delako hori eragozteko. Baina gertatzekotan ere, ustekabeen, halabeharrez, gertatuko litzatekeelakoan nago. Halabeharrek ere badu eraginik, berak ongi asko dakien moduan. Eta horrexegatik, sortzen ari denean, berez ateratzen zaiona egiten du, eta ez aurretik nahita pentsatutako zerbait. Halako batean, kontzeptua bururatzen zaio, eta besterik gabe, berez, sortzeari ekiten dio, marrak, bastidoreak eta moldurak mugiarazten baitute erreminta, ur-bilatzailearen eskuak hurritz-hagatxo bezalaxe.

Bere lan zorrotza besteen irudikapenen mende da geratzen. Besteak ikusten du, anakoretak behatzen du. Horrela, uztartu egiten dira, batetik, proposamen estetikoa, eta bestetik, proposamen hori onartzen, edo bere burua hipnotizatzen uzten, duenaren pertzepzio-ahalegina. Honako honetan, egoki deritzot beste formatu bat adibidetzat hartzeari: liburutegia, hain zuzen. Batzuk liburuzale sutsuak gara, irakurtzeko grina itsuaren gaitz sendaezinak jota gaude. Horrelako guztiok argi bereizten ditugu bibliomania eta bibliofilia. Izan ere, bibliomaniak liburu bitxien bilduma osatzea du helburu, numismatikak bezala. Bibliofiliak, aldiz, irakurri egiten ditu, eta gainera, denak irakurtzeko denbora izango duela uste du. Eta berrirakurtzeko astia ere bai. Horrela, artearen bibliomanoek litxarreriak jaten ikusten dituzte lanak, edo zain egoten dira egilea Reina Sofía museora noiz joango; bibliofiloek arakatu egiten dute, usaindu, liburuari darizkion zeinuak antzemateko gaitasunean zenbat aurreratu duten ikusteko. Xurgatu egiten dute, dastatu, esnifatu.

### **Begi bikoitzak**

Iñigo Arregik espekulazio libreari eskaintzen dio bere lana. Ez dago, zinez, eskuzabalagoa izaterik. Baina hori bai, gonbidatu baino gehiago, eskatu, edo bultzatu egiten du, konpromisoa hartzera alegia, betiere begiak metafisikak, kosmologiak, parajeak edo pertsonaiak ikustera

behartu gabe. Berak jarraitu egiten die, bai, joera eta inertzia fantasmatico, zoomorfo eta antropomorfoei, printzipio jakin bat oinarri hartuta: giza izaerak berezkoa duen bereizmen-ahalmenari esker, zerbaitez jabetzeko edo zerbait ulertzeko, ikusi egin behar dugu lehenbizi. Oraintxe bertan azalduko dizuet zer adierazi nahi dudun.

Ikusmena zentzumen bikoitza da, eta kolorea, lñigoren pintura-sinfonia guztien oinarria, erretinan dago, *fovea centralis* izeneko gunean. Lehen aipatutako bereizmen-ahalmena, ahalik eta gutxien egiteko legearen emaitza, gune horren mende dago. Eta bertara doakigu, halaber, begiratu batean ikusten dugun guztia. Baina organo horiek, begiak, beste ahalmen baten gordeleku ere badira, nahiz eta gaur egun ahalmen hori gaizki ikusita egon, zaharkituta dagoelakoan edo aspaldiko kontua delakoan. Zientzialari askorentzat, giza fisiologiak ez du traste zaharrak gordetzeko ganbararik. Eta guri dena iruditzen zaigu behar-beharrezkoa.

Ikusmenaren funtzio hori, duela gutxira arte atrofiatutzat jo duten hori, periferikoa da, alajaina. Radar behatzailearen parekoa da, baina ez da mugatzen ohartaraztera edo berehalako iritzietara, edo auriritzietara. Lehenbizi sortzailearen eta gero sortze-prozesuaren emaitzak aztertzen dituen ikuslearen erretxinen aurrean, forma eta modulu zehatzez osatutako panorama da eratzten. Baina beste ikuspegi horretan, periferikoan, erdigunetik at dagoela, argien, piroteknien, isla lausoen, molde zalantzakorren eta zirriborro nahasien koreografia ezin baliatsuagoen aldi bereko dantzak eskaintzen zaizkigu. Bipedo adimendunen zigorretako bat hauxe da: periferian bizi diren alboetako mamu horien guztien artean batzuk aukeratu behar izatea, nahitaez, fobeara Joan daitezten. Eta han, irudi kuttun, eta ezagun, bihurtzen zaizkigu. Abelburu xakituak dira, lehengoak bezalaxe, gure burdinarekin baliagarri eta zehatz bereizgarriak ezarri ondoren. Etengabeko fluxu horren ondorioz, artelan oro mutantea dugu.

### **Hitzak, hitzak, hitzak**

Produktu estetiko batez ezin konta ahala irakurketa egin ditzake begi berberak. Gogoko aukeraketak egin behar izateko bertute-akats hori behin eta berriz errepikatzen da. Zenbat begirada, horrenbeste irakurketa. Sortzailearen eta norbere bizitzan parte hartzen uzten dionaren arteko isilpeko ituna dugu. Kornukopia eta leihoa. Edo biak batera. Minimal-art delakoaren aita batek, Frank Stellak, bere benetako ustea agerian utzi zuen, konturatu gabe, erretorikaren bidez, bere eskolari buruzko baieztapenak esaten ari zela: “Koadroan ikusten dena baino ez dago! Ikusten duzuna, horixe dago!” Utopia hutsa da hori. Begiratzen hasi eta hamar minutura, markoaren barruko guztia aberastu edo berriz asmatzen du ikusmen periferikoak, psikologikoak, gogotik saiitzen baita adierazleak, ikuspegiak, luzapenak, ilusioak, argudioak bilatzen, eta hitz batean, gogoko aukeraketak ondoz ondo egiten.

Ongi legoke arteak sekta itxia izateari uztea, hau da, axioma patafisikoak baztertzea eta formen eraketa harmonikoari erreparatzea burubelarri. Formen sorburua, hain zuzen, formarik eza da. Eta informalismo hitza asmakuntza faltsua, abstraktuaren eta figuratiboaren arteko bereizketa bezalaxe. Hitzak, hitzak, hitzak... Ez dago arte plastikorik figurarik gabe. Eta ez dago abstraktua den ezer ere. Homo sapiens espeziearen eta gainerako homininoen arteko desberdintasun nagusia (lehen aipatutako nahitaezko aukeraketen, edo hobeto esan uko egin behar izateen, jatorrizko bekatuaz gain) gauza guztiei esanahia bilatzeko joera da. Ahalik eta esanahirik zehatzena bilatzen saiitzen gara, gainera. Errenazimendutik, lehen ismo antiakademikotik,

artearen arloan arakutzen eta sakontzen saiatu diren guztiak irtenbiderik eta konponbiderik gabeko labirinto edo ikerkuntzetan murgildu dira. Inoiz asmatu diren gezurrik handienak kanonak ditugu: anatomia oro disimetrikoa da. Horregatik, informazio argi matematizatua emateko joera txarra uxatu egin behar da, eta hala egiten du Arregik. Joera horren eraginez, Fra Paciolo dil Borgok eta Leonardok, eta geroago Fibonaccik, denbora, baliotsua bezain laburra, alferrik galdu zuten proportzio aureoa bilatzeko nahiak eraginda.

### **Intuitibo zorrotza**

Kimera aureo hori senaren eta fokatzeko edo enkoadratzeko berezko gaitasunaren osagaia dugu. Lehen aipatutako guztiez gain, horren atzetik ibili ziren, askoz ere lehenago, Keopseko arkitektoak eta pitagorikoak. Alferrik, ordea, ez baitago inongo teorema, printzipio edo algoritmoren baitan. Teknologia modernoak ere ezin digu lagundu, txipen sistemaren oinarria ez delako, uste den moduan, bat-bi, zero-bat baizik.

Arregiri, intuitibo zorrotza izaki, ezin zaio inolako etiketarik ezarri, ezta ezaugarri bereizgarrikerik nabarmendu ere. Arte-kritikariek eta analista soziopolitikoek hain gogotsu mugatzen dituzten eruedetatik at dago. Izan ere, kritikari eta analista horiek gutun astrala egiten diote egunero gure mundu erotu honi, esandako guztia bete-betean sinestuz. Egituren mihiztadura ororen iturburua ikuspegi edo geometria proiektiboaren sistematan sortutako kaosa izan ohi da. Aipatutako sistemari fraktala esaten diote, nolabait deitu behar zaiola eta. Birjina baldin bada, galarazi egin behar zaio birjintasuna emankor bihurtzeko. Ondorengo urratsa, definizioak bilatzea, entomologoen zeregina da, eta taxonomia deritzo. Hori ezin dakioke aplikatu, ordea, artea goldatzeko edo erditzeko grina itsuaren mende daudenei. Litekeena da, eta hala izango da ziurrenik, Iñigo Arregi, pertsona eta artista moduan zeharo bestelakoa izatea, edo kontrako ezaugarriak izatea. Iñigo Arregi artista murgildu egiten da grabatuetan, olio moldakorrean, bere jatorrizko giroetako lantegien oroimenak jota sortutako eskultura alegorikoetan, poleaz, fresatzeko makinaz, garabiz, dibidietaz, ijezketaz hornitutako industria-plantetan, eta altzairuaren erreinuko gainerako arkeologietan.

Argi nabaritzen da, bai, jatorriak, hastapenak, ikertu eta ukitu egiten dituela, museo tiflogikoetan gisara. Bere baitan da barneratzen. Gero metodoari heltzen dio, noski, endotropo izateari utzi eta exotropo bihurtuz, eta zehatz-mehatz jorratzen ditu arte aplikatu anitzetako eskulan zorrotzak. Arregi ekinean hasten da, aurriritziak uxatuz, eta lurrean ezarritako oihalekin buruan puzzlea sortzeko prozesuari ematen dio hasiera. Ez du inolako konbentziorik, ez da abiatzen iparrera edo hegora, gora edo behera, ekialdera edo mendebaldera. Gutxinaka-gutxinaka, graffitiak sekuentziak jakinarazten dizkio, sekuentzien artea baita berea, frisoen komikia, edo bineta bakarrekoa. Eta hortxe, luzeratarako espazioan edo esparru filmikoan, kokatzen da lehen aipatutako ikuspegi periferikoa. Sakontasunak, zerumugak eta planetario-irakurketak eskaintzen dizkigu, hainbat konstelazio, supernoba eta guzti, uztartzen dituen euskarri bakar batean.

## Platonen hitz-asmakizuna

Etiketa indibidualak, ongi ulertu dezagun, ez dira lortzen ez kretonazko diban freudiarretan, ez norbere oroimen autoestimatzailan, ezta goizeko aharrausiaren ispilu aurrean ere. Horrela, fotomatoiaren aurrean ezarri eta gure irudia aurrez aurre ikusten dugunean, asaldatu egiten gara, izugarri asaldatu ere, geure buruaz dugun ikuspegia errealitate gordinak erakusten diguna baino askoz ere atseginagoa dela egiaztatu ondoren. Picassoren esaldi apokrifo bat aipatuko dut jarraian. Horra zer erantzun zion bere erretratu kubistarekin harrituta geratu zen emakume zintzo bati: “Nik bukatu dut neure lana; orain, irudiaren itxura hartzea da zure obligazioa”. Adierazi nahi dudana hauxe da: oro har neutrala izateko gaitasun handiagoa, itxuraz behinik behin, duen norbaiti eskatzen zaio subjektuarentzat, kasu honetan objektuarentzat, argi dagoen zerbait epaitu, idatzi eta deskribatzeko.

Ez dakit ongi azaldu dudana, eta beraz, metafora egoki batez baliatuko naiz. Konturatzen bazarete, kirol asko gatzeta eta piperra galtzen hasi dira, euskarri digitalen bidez epaileen akatsen pizgarri bikainak eskaintzeari ekin diotenetik. Horixe gertatu da, besteak beste, tenisarekin. Futbolearen ere, mobiolaren ondorioz, baretu egin ziren astelehenetako polemika biziak. Baina denboraren poderioz, jakina, mobiola bera bihurtu zen eztabaida-iturri, elkarrizketa sutsuak eraginez berriz.

Demagun Iñigo Arregiren deskribapena egitera ausartzen naizela –ausardia galanta litzateke benetan–, eta bi alderdiko izaki janiko horren, pertsona eta pertsonaia horren, ezaugarriak azaltzen ditudala. Hori egin, eta gainera, bete-betean igarriko banu, krimen perfektua burutuko nuke. Izan ere, erail egingo nituzke bere pribatutasuna eta iragazki sekretuak. Eta akabo misterioa. Ekar dezagun gogora Platonek *Sofista* lanean erabilitako hitz-asmakizuna. “Hau gorria dela” esan ahal izateko, lehenbizi “gorria ez izatea” zer den zehaztu behar dela dio Platonek. Horren *ad hominem* erabilerari helduz, nire zeregina definizio teoriko jakin bat egitea litzateke: Arregi ez izatea zer den zehaztea. Horrela, gero, alferrikako itzulingururik ematen ibili gabe, Arregi zer den zehatz-mehatz azalduko nuke. Platon, zorionez, ez zen platonikoa. Beraz, aipatutako proposamena umore filosofikoa baino ez da. Ongi asko zekien ez dagoela ezer ere ez den zerbait, nahiz eta zerbait hori ez izatea zer den zehaztu.

## Sua eta garra

Beste baten lana, subjektiboa beti eta batzuetan bere baitan erabat bildua, argitzea, eta azterketa konparatua egitea, naturaz kontrako harremanen baitan kokatu beharreko jarduera dugu, beste lan hori beti delako subjektiboagoa, eta batzuetan argitu ezina. Aipatutako harremanetan bi alderdi daude: artegintza, batetik, eta emaitzak ikusten eta epaitzen dituen begia, bestetik. Eskumenik gabeko epaiketa egiten du. Hortxe sortzen da hasieran aipatutako paradoxa: artelan ikusgai jartzen duenak ez du gehiago erakusterik nahi, autohilketa horretan inolako zerikusirik ez duten azalpenak ez emateko, eta besteen inspirazioa literaturaren edukiontzietan sartzeko ontziratzen edo botilaratzen dutenek ere susmatzen dute agerian utzitako egia hori ez dutela benetan ulertu.

Adierazpen plastikoen iraultza —ekintza eta jarrera gisa— oso aspaldi gertatu zen, eta horrenbeste urte igaro eta gero, bada egia esateko ordua: jadanik inork ez du itsuaurrekorik behar aretoak zeharkatzeko. Aurretiaz ongi pentsatutako hitz errebolitariak esan dituzte

zenbaitek: arte burgesia txikiaren dinamika dela. Ekar dezagun gogora Andy Warholen zorioneko esaldi hura: burges itxurarik ez eman nahi izatea baino jarrera burgesagorik ez dagoela. Hemeretzigarren mendeko dandien axiomaren arabera, hauxe da dotoretasunik handiena: arropa berria estrainako aldiz janztea, eta inork ez igartzea berria denik. Horretan datza atzera begirako erakusketan bizi-klausula. Berezko gaitasuna, zintzotasuna eta etengabeko ahalegina uztartzen direnean, ez dira ia inondik inora bereizten sustraiak eta alderik garaikideenak, jatorrizko obulazioa eta ibilbide osoa. Benetako atzera begiradek gizatasuna dute ezaugarri, eta joan-etorriko bidaia egiten dute, ibilbide bikoitzeko trenak bailiran. Iñigo Arregiri argi eta garbi antzematen zaio sua eta garra, lanerako grina bizia. Sortu, nahastu eta gero urrundu; ez du horrelakorik egiten. Bere diseinuak pintatu, grabatu eta zizelkatu egiten ditu, zuzen-zuzenean, nolabait esateko, play back-ik edo partiturarik erabili gabe. Dena den, koloreen jazzman-a denez, batzuetan horietaz baliatzen da gaia girotzen hasteko. Patina eta mihiztadurentzako alkimiaren galdaragintzan oinarritzen diren alegoriazko makina erreminten bolumenei dagokienez, jamsession-eko batbateko sorkuntza-lanak ditugu; baina kontuz gero, saio horietan parte hartzeko nahitaezkoa baita berezko trebetasuna edukitzea. Ahotsik gabe ez dago flamenkorik, ezta blues-ik ere. Eta behar-beharrezko beste dohain bat ere gainezka du Iñigo Arregik: feeling-a. Dohain horren bidez komunikatzen da, eta zentzu horretan, berriz, badugu premisa kategoriko bat. Ez dago komunikazioa helburu ez duen funtzio estetikorik. Elkarren arteko komunikazioa. Orkestra, banda, tam-tama, Mozarten rapa... jotzen hasi dira, guk dantzatzeko.

Hasi gaitezen, bada, dantzan.